

BESTELAKO XEDAPENAK

ENPLEGUKO ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA

1823

AGINDUA, 2017ko martxoaren 22koa, Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburuarena, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren «Auzolandegiak» programaren plazen deialdia egiteko dena.

Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomia Estatutuaren 10.39 artikuluan arabera, Euskal Autonomia Erkidegoak gazteria-politikaren arloko eskumen osoa du. Bestetik, Autonomia Erkidego Osorako Erakundeen eta Lurralde Historikoetako Foruzko Jardute Erakundeen arteko harremani buruzko azaroaren 25eko 27/1983 Legearen 7. artikuluan, Euskal Autonomia Erkidego osoko erakundeei gazteriaren arloko ekintza zuzenak garatzeko eskumena esleitu zitzaion, besteak beste.

Bestalde, lehendakariaren azaroaren 26ko 24/2016 Dekretuak –Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioako sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituenak eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituenak– 8. artikuluan xedatzen du Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailari dagozkiola, besteak beste, Gazteriari buruzko egitekoak eta jardun-arloak.

Arau-esparru horretan oinarrituta eta jardun-arlo horretako erakundeen eskumenak errespetatuta, Eusko Jaurlaritzak auzolandegien programa bat kudeatu du Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailaren bidez.

Horrenbestez, honako hau

XEDATZEN DUT:

1. artikulua.– Xedea.

Agindu honen helburua da Euskal Autonomia Erkidego Administrazioaren 2017ko «Auzolandegiak» programaren plazen deialdiaren arauak ezartzea.

2. artikulua.– Definizioak.

1 – Auzolandegietan hainbat jatorritako gazte talde batek konpromisoa hartzen du, borondatez eta eskuzabalki, gizarte-hedadurako eta jarduera osagarrien lan-proiektu bat garatzeko, denbora-tarte jakin batean. Proiektua bitarteko bat da honako balore hauek sustatzeko: bizikidetzatolerantzia, elkartasuna, parte-hartzea, edo kultura arteko ikaskuntza, besteak beste.

2 – Auzolandegietan parte hartzen duten pertsonen ostalua eta mantenu osoa izango dute.

3 – Aseguruak: Deialdi honetan eskaini diren auzolandegietan parte hartzen duten pertsonen aseguruak egin behar dute Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak adostutako istripu-aseguruen eta erantzukizun zibileko aseguruaren kontratuetan erabakitako baldintzetan.

4 – Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailaren Gazteriaren gaien zuzendaritza eskuduna izango da gazteen eta autonomia-erkidego edo erakunde antolatzailearen arteko bitartekaria beste autonomia-erkidego batzuek edo Nazioarteko Boluntariotza Zerbitzuak (SVI) antolatutako auzolandegietan (autonomia-erkidegoek eta SVIk haien arauak dituzte). Gainera, ez da honako hauen erantzulea izango: behin betiko onarpenena, data-aldaketena edo txandak bertan behera uztearena, ezta ostalua, janaria, lan-ordua, denbora librearen antolatzea edo kuota itzultzearena ere.

5.– Auzolandegiaren tokiraino lekualdatzea parte-hartzaileen kontura izango da. Halaber, parte-hartzaileen erantzukizuna izango da, nazionalitatea kontuan hartuta, auzolandegiaren atzeriko herrialdean sartzeko beharrezkoak diren agiri guztiak eskuratzea.

6.– Deialdi honen parte-hartzaileek ezingo dute auzolandegi batean baino gehiagotan parte hartu.

3. artikulua.– Eskainitako plazei buruzko informazioa.

1.– Deialdian Euskal Autonomia Erkidegoan, estatuko beste autonomia-erkidego batzuetan eta beste herrialde batzuetan egingo diren auzolandegiak eskaintzen dira.

Eskainitako plazak www.gazteaukera.euskadi.eus atarian kontsultatu daitezke, baita Eusko Jaurlaritzaren Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailaren Gazteriaren gaien zuzendaritza eskuduneari ere (Donostia kalea 1, Lakua I eraikina, 1. solairua, 01010 Vitoria-Gasteiz).

2.– Euskal Autonomia Erkidegoan eskainitako plazen % 10 dibertsitate funtzionala duten pertsonentzat gordeko dira, auzolandegiaren jardura motaren arabera.

3.– Dibertsitate funtzionala duten pertsonak laguntzaile bat izango dute auzolandegian dauden bitartean.

4.– Eskainitako plazen zerrenda aldatu egingo da eskaerak aurkezteko epea hasten denetik aurrera, plazak erreserbatu ahala kenduko direlako eta plaza berriak eskaini daitezkeelako.

5.– «Auzolandegiak» programari buruzko informazioa www.gazteaukera.euskadi.eus atarian kontsultatu ahalko da, baita Eusko Jaurlaritzaren Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailaren Gazteriaren gaien zuzendaritza eskuduneari ere (Donostia kalea 1, Lakua I eraikina, 1. solairua, 01010 Vitoria-Gasteiz).

4. artikulua.– Plaza lortzeko baldintzak.

Deialdi honen arabera, honako hauek dira auzolandegi batean plaza lortzeko baldintzak:

a) Euskal Autonomia Erkidegoko udalerri batean erroldatuta egotea agindu hau EHAAr argitaratu baino lehen.

b) Europar Erkidegokoak ez diren atzerritarren kasuan, dagokien bizileku-baimena izatea eta Euskal Autonomia Erkidegoko udalerri batean erroldatuta egotea agindu hau EHAAr argitaratu baino lehen.

c) Eskatutako auzolandegia egiteko adierazitako adina izatea hori hasten den egunean.

d) Guraso-ahala edo tutoretza duen pertsonaren baimena izatea, eskaera egiteko orduan eman-tzipatu gabeko gazteen kasuan.

e) Eskaera adierazitako orduan eta moduan egin izana.

f) «Auzolandegiak» programan izena emateko kuota ordaindu izana.

g) Eusko Jaurlaritzaren Gazteriaren gaien zuzendaritza eskudunari agindu honen 7. artikuluko 2. paragrafoan zehaztutako agiriak bidaltzea, horren 7. artikuluko 3. paragrafoan adierazitako epean.

h) Hurrekin harremana egongo den auzolandegien kasuan, Sexu Delitugileen Erregistro Zentralaren ezezko ziurtagiria aurkeztu beharko da, urtarrilaren 15eko 1/1996 Lege Organikoaren (adin txikikoen babes juridikoari buruzkoa) 13. artikuluko 5. paragrafoan ezarritakoa, uztailearen

28ko 26/2015 Legearen bidez ezarri dena (haurrak eta nerabeak zaintzeko sistema aldatzen duen legea). Atzerritarren kasuan, haien nazionalitatearen herrialdeko aurrekari penalen ziurtagiria ere aurkeztu beharko dute.

i) Ezingo dute izena eman azken hiru deialdietako batean plaza bat esleitu eta auzolandegira joan ez diren pertsonak, aldez aurretik Eusko Jaurlaritzaren Gazteriaren gaien zuzendaritza esku-dunari uko egin diotela jakinarazi dioten pertsonen kasuan izan ezik.

5. artikulua.– Aurrez izena emateko eta plaza eskatzeko eskaeren epea.

1.– Auzolandegietan parte hartzeko interesa duten pertsonak aurrez izena emateko eskaera egin beharko dute Internet bidez apirilaren 19a eta 25a bitartean, bi egunak barne.

2.– Dibertsitate funtzionala duten pertsonen kasuan, eskaera egiteko www.gazteaukera.euskadi.eus atarian jaits dezaketen eskaera-eredua bete beharko dute apirilaren 19tik aurrera, 15 egun balioduneko epean.

6. artikulua.– Eskabideak izapidetzea.

Eskaerak izapidetzeko bi prozedura egingo dira: txanda libreari dagokiona eta dibertsitate funtzionala duten pertsonen dagokiena.

1.– Txanda askea.

1.1.– Izena aurrez emateko eskaera.

Auzolandegietan parte hartzeko interesa duten pertsonak aurrez izena emateko eskaera egin beharko dute, Internet bidez, www.gazteaukera.euskadi.eus atarian auzolandegiei buruzko helbideko inprimakia betetz. Hori egin ostean, eskaera-zenbaki bat emango zaie. Eskaerak eta horren zenbakiak aukera emango diete aurrerago egingo den zozketan parte hartzeko.

Interesdun bakoitzak behin baino ezingo du aurrez izena eman. Inprimakia betetzean okerren bat egongo balitz, harremanetan jarri beharko da Gazteriaren gaien zuzendaritza eskudunarekin.

Aurrez izena emateko eskaerak baliogabetuko dira pertsona batek eskaera bat baino gehiago egin duela antzematen bada, eskaerak behar bezala beteta ez badaude edo eskatzaileek auzolandegietan plaza bat lortzeko baldintzak betetzen ez badituzte, deialdiarekin bat etorriz.

1.2.– Zozketa.

Jasotako aurrez izena emateko eskaerak egiaztatu ondoren, www.gazteaukera.euskadi.eus web-orrian argitaratuko da Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailaren Gazteriaren gaien zuzendari eskudunaren ebazpena. Behin-behineko zerrenda izango da, eta bi egun emango dira akatsak zuzentzeko.

Akatsak zuzentzeko epea amaitzen denean, web-orri berean argitaratuko da aurrez izena emandakoen behin betiko zerrenda, eta zozketa egingo da.

Jasotako eta egiaztatutako aldez aurreko izen-emate guztien artean zozketa egingo da nota-rioren aurrean.

Zozketan zenbaki bat aterako da, eta zenbaki horretatik aurrera emango zaie eskatzaileei egun eta ordu bat telefono-dei bat egiteko.

Zozketan ateratako zenbakia lehena izango da aukeratzeko ordenan, eta, hurrenez hurren, horrela jarraituko da deialdian eskaintzen diren plazen bikoitza osatu arte.

Eskainitako plazen bikoitza baino aurrez izena emateko eskaera gehiago egongo balitz, zozketan deia egiteko txanda lortzen ez dutenek ezingo dute deialdi honetan izena eman.

Deialdian eskainitako plazak baino aurrez izena emateko eskaera gutxiago egongo balitz, deia egiteko txanda esleituko zaie eskaera guztiei.

Zozketan hitzordua lortu duten eskatzaile guztiek sms bat eta mezu elektronikoko bat jasoko dute. Horren bidez, lortutako hitzorduaren ordena adieraziko zaie, baita eguna, ordua eta auzolandegian izena emateko deia egiteko telefonoa ere.

Zozketaren emaitza, esleitutako egunarekin eta orduarekin, www.gazteukera.euskadi.eus web-orrian argitaratuko da, eta Eusko Jaurlaritzaren Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailaren Gazteriaren gaien zuzendaritza eskudunean ere kontsultatu ahalko da (Donostia kalea 1, Lakua I eraikina, 1. solairua, 01010 Vitoria-Gasteiz).

1.3 Izen-ematea.

Esleitutako eguna eta ordua aintzat hartuz, telefono-dei bat egin beharko da memento horretan eskuragarri dauden plazen artean bat aukeratzeko. Denbora-tarte nahikoa egongo da plaza hautatzeko eta horretan izena emateko. Denbora agortuta, plaza aukeratzeko ez bada, txanda eta izena emateko aukera galduko dira.

Plazak agortu daitezkeenez, eskatzaileak aukerak lehenetsi behar ditu deia egin aurretik, deien denbora-muga kontuan hartuz.

Plaza aukeratu ondoren, titularra horretan izena emanda egongo da, eta Interneten eskuratu ahalko ditu horri buruzko agiriak, www.gazteukera.euskadi.eus web-orriko auzolandegien gaineko atalean.

Plazaren eskaera egiten denean, hori eskuragarri dauden plazen eskaintzatik kenduko da, izena emateko kuota ordaintzeko epeak iraun bitartean.

Zozketan esleitutako egunean eta orduan deia egiten ez duten eskatzaileek txanda galduko dute.

Plazak agortzen direnean, www.gazteukera.euskadi.eus web-orrian eta izena emateko telefonon jakinaraziko da, eta izena emateko prozesua itxiko da.

1.4.– Bete gabeko plazak.

Izena emateko epea amaitzean, plaza hutsik badago, www.gazteukera.euskadi.eus web-orrian jakinaraziko da, eta denbora-tarte bat utziko da interesdunek plaza erreserbatzeko, horretarako jakinaraziko den telefono-zenbakira deituta. Aurrez izena eman arren plazarik lortu ez duten guztiek izango dute parte hartzeko aukera. Plazak erreserbatu ahala, zerrendatik kentzen joango dira.

2.– Dibertsitate funtzionala duten pertsonentzako txanda.

2.1.– Plaza eskaera.

Dibertsitate funtzionala duten pertsonak www.gazteukera.euskadi.eus atarian jaits dezaketen plazaren eskaera-eredua bete behar dute, eta honako hauetan aurkeztu beharko dute: Eusko Jaurlaritzaren Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailaren bulegoetan, Lakuako Zuzenean zerbitzuan eta Bilboko, Donostiako eta Vitoria-Gasteizko Zuzenean zerbitzuaren bulegoetan. Baita honako hauetan ere: Euskal Autonomia Erkidegoko erregistro osagarrietan (hemen daude zerrendatuta: Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorren eta bere erakunde autonomoen erregistroen sorrera, antolaketa eta funtzionamenduari buruzko apirilaren 29ko 72/2008 Dekretua),

edo Administrazio Publikoen Administrazio Prozedurei buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan aurreikusitako organoetan. Plazaren eskaera-eredua deialdi honen II. eranskinean ere eskuratu daiteke.

Pertsona bakoitzak plaza bat aukeratu ahalko du, eta, eskainitako plazak baino eskaera gehiago egon daitezkeenez, eskaera-zenbaki bat esleituko zaio.

2.2.– Zozketa eta plazaren erreserba.

Auzolandegia eta txanda dibertsitate funtzionala duen pertsona batek edo bik baino ez badute eskatzen, zuzenean gordeko zaie plaza, eskaerak egiteko epea amaitzen denean.

Zozketa egingo da auzolandegiren batean plaza baino eskaera gehiago badago. Zozketaren bidez eskaerek plaza aukeratzeko ordena zehaztuko da. Gazteriaren gaien zuzendaritza eskudunak zozketan ateratako ordenan deituko die interesdunei plaza aukera dezaten.

Plazak agortzen direnean edo eskatzaile guztiei aukeratzeko aukera ematen zaienean, www.gazteaukera.euskadi.eus web-orrian jakinaraziko da eta izena emateko prozesua itxiko da.

Zozketaren emaitza eta esleitutako plazaren erreserba www.gazteaukera.euskadi.eus web-orrian argitaratuko dira, baita Eusko Jaurlaritzaren Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailaren Gazteriaren gaien zuzendaritza eskuduneari ere (Donostia kalea 1, Lakua I eraikina, 1. solairua, 01010 Vitoria-Gasteiz).

Gazteriaren gaien zuzendaritza eskudunak telefono-dei baten bidez eta mezu elektronikoen baten bidez berretsiko ditu zozketen emaitzak eta eskuratu zezaketen plaza erreserbatuta duten ala ez.

7. artikulua.– Izen-emateen izapidetzea.

1.– Izena emateko kuota ordaintzea.

Txanda librean eskaera egin duten interesdunek izena emateko kuota ordaindu beharko dute egun baliodun bateko epean, plaza aukeratu eta hurrengo egunetik hasita. Kuota ordaindu ondoren, plaza eskatzailearen izenean erreserbatuta egongo da.

Dibertsitate funtzionaleko pertsonen kasuan, ordainketa bi egun balioduneko epean egin beharko da, Gazteriaren gaien zuzendaritza eskudunak plazaren erreserba jakinarazten dietetik eta beharrezko agiriak bidaltzen dizkientetik aurrera.

Euskadin, 110 euroko kuota ezarriko da. Hori xedatzen duen araua da 2015eko apirilaren 1eko Agindua, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuarena, «Auzolandegiak» programan izena emateko kuotaren prezio publikoa ezartzen duena.

Gainerako autonomia-erkidegoetan, bakoitzean indarrean dagoen izena emateko kuota ordaindu beharko da.

Beste herrialde batzuetako auzolandegi batzuek ordain gehigarria ezartzen dute (kuota gehigarria). Horiek ez dagozkio Euskadiko Autonomia Erkidegoaren Administrazioari, eta eskudirutan ordaindu beharko dute boluntarioek auzolandegira heltzen direnetik lehen jarduera-egunean.

2.– Izena emateko beharrezko agiriak.

Agiri hauek bidali beharko zaizkio Gazteriaren gaien zuzendaritza eskudunari:

a) Izena emateko agiria, beteta eta sinatuta.

- b) Izena emateko kuotaren ordainagiria.
- c) Guraso-ahala edo tutoretza duen pertsonaren baimena, eskaera egiteko orduan emantzipatu gabeko gazteen kasuan.
- d) Behar izanez gero, dibertsitate funtzionalaren ziurtagiria.
- e) Nortasun Agiri Nazionalaren, pasaportearen edo AIZren fotokopia edo nortasunaren datuak elektronikoki egiaztatzeke baimena.
- f) Errolda-ziurtagiria, Auzolandegiak 2017 programaren deialdia Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu ostean igorritakoa, edo erroldaren datua elektronikoki egiaztatzeke baimena.
- g) Europar Erkidegokoak ez diren atzerritarren kasuan, bizileku-baimena.
- h) Deialdiaren 4.h) artikuluan ezarritakoarekin bat etorritz, Sexu Delitugileen Erregistro Zentralaren ezezko ziurtagiria aurkeztu beharko da, urtarrilaren 15eko 1/1996 Lege Organikoaren (adin txikikoen babes juridikoari buruzkoa) 13. artikuluan 5. paragrafoan ezarritakoa, uztailearen 28ko 26/2015 Legearen bidez ezarri dena (haurrak eta nerabeak zaintzeko sistema aldatzen duen legea). Atzerritarren kasuan, haien nazionalitatearen herrialdeko aurrekari penalen ziurtagiria ere aurkeztu beharko dute.

3.– Agiriak bidaltzeko epea.

Txanda librean plaza eskatu eta aukeratu duten pertsonak, izena emateko kuota ordaindu ondoren, jasotako agiriak inprimatu beharko dituzte. Horiek Gazteriaren gaien zuzendaritza eskudunari bidali behar dizkiote eskatutako gainerako agiriekin batera, behar bezala beteta eta sinatuta, egun baliodun bateko epean, plaza aukeratu eta hurrengo egunetik hasita.

Dibertsitate funtzionala duten pertsonak, ordainketa egin eta agiriak jaso ondoren, Gazteriaren gaien zuzendaritza eskudunari bidali behar dizkiote eskatutako gainerako agiriekin batera, behar bezala beteta eta sinatuta, lau egun balioduneko epean.

Izena emateko inprimakia eta erantsitako agiriak bertatik bertara aurkeztu ahal izango dira Lakuako Zuzenean zerbitzuan eta Bilboko, Donostiako eta Gasteizko Zuzenean zerbitzuaren bulegoetan, baita honako hauetan ere: Euskal Autonomia Erkidegoko erregistro osagarrietan (hemen daude zerrendatuta: apirilaren 29ko 72/2008 Dekretuan, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren eta bere erakunde autonomoen erregistroen sorrera, antolaketa eta funtzionamenduari buruzkoan) edo urriaren 1eko 39/2015 Legearen (Herri Administrazioen Administrazio Prozedurei buruzkoa) 16.4 artikuluetan aurreikusitako organoetan.

4.– Izen-emateak ezeztatzea.

Egindako eskaerak kasu hauetan baliogabetuko dira:

– Aurrez izena emateko eskaeraren inprimakian emandako datuak identifikazio-datuekin bat ez badatoz.

– Izena emateko kuota ordaintzeko epea igarota ordainketa egin ez bada.

– Eskatutako agiriak aurkezteko epea igarota horiek aurkeztu ez badira, edo interesdunak berriaz eta idatziz eskatu badu. Kasu horretan, idazkiak datu hauek barne hartu beharko ditu: interesdunaren izen-abizenak, NANaren edo AIZren zenbakia, izen-ematea ezeztatu nahi duen auzolandegiaren izena eta data, eta interesdunaren sinadura.

Idazkia Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailaren Gazteriaren gaien zuzendariari zuzenduta egongo da, eta 7. artikuluko 3. paragrafoan adierazitako edozein tokitan aurkeztu beharko da.

8. artikulua.– Eskaeretako akatsak zuzentzea.

Izena emateko eskaeraren izapideak onartzeko eskatzen diren dokumentu batzuk falta direla edo horietan forma-akatsak daudela ikusiz gero, hamar egun balioduneko epea emango zaio interesdunari, huts-egitea konpondu edo aginduzko dokumentuak aurkez ditzan, eta jakinaraziko zaio ezen, hala egiten ez badu, eskaeran atzera egin duela edo izapideak egiteko eskubidea galdu duela ulertuko dela; betiere, hartarako, aldez aurretik ebazpen bat emango da.

9. artikulua.– Plazak behin betiko esleitzea.

Gazteriaren gaien zuzendaritza eskudunean 7. artikuluko 2. paragrafoan ezarritako izena emateko dokumentua eta agiriak jasotzen direnean, eskatutako plaza esleituko da. Interesdunari berriaz jakinarazteaz gain, plazen esleipena jakitera emango da Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailaren Gazteriaren gaien zuzendariaren ebazpenean, agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik sei hilabeteko gehienezko epean.

Atzerrian egingo diren auzolandegien kasuan, plaza esleitzeko auzolandegia antolatzen duen erakundeak oniritzia eman eta berriaz jakinarazi beharko du.

Plaza esleituta duten pertsonak auzolandegira ez joatea erabakitzen badute, Eusko Jaurlaritzaren Gazteriaren gaien zuzendaritza eskudunari jakinarazi beharko diote lehenbailehen.

10. artikulua.– Deialdiaren izapidetzearen inguruko argitalpenak zer bitartekoren bidez egingo diren adieraztea.

Deialdi honen izapidetzearen inguruko argitalpenak www.gazteukera.euskadi.eus atarian egingo dira, baita Eusko Jaurlaritzaren Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailaren Gazteriaren gaien zuzendaritza eskudunaren iragarki-oholetan ere (Donostia kalea 1, Lakua I eraikina, 1. solairua, 01010 Vitoria-Gasteiz).

11. artikulua.– Plazari uko egitea eta izena emateko kuota itzultzea.

1.– Parte-hartzaileek edozein momentutan uko egin ahal izango diote plazari, auzolandegiak hasi baino lehen. Horretarako, agindu honen III. eranskina bete eta sinatu beharko dute.

2.– Gainera, kuota itzultzeko eskubidea badute, Aginduaren IV. eranskina ere bete eta sinatu beharko dute.

3.– Euskal Autonomia Erkidegoko eta atzerriko auzolandegietan izena emateari dagokion prezio publikoa itzultzea artikuluko honetan ezarritakoarekin bat eginez egingo da: irailaren 11ko 1/2007 Legegintzako Dekretuak onartutako Euskal Autonomia erkidegoko administrazioaren tasa eta prezio publikoei buruzko Legearen testu bateginaren 34.6 artikuluan ezarritakoaren arabera. Hau da, kasuan kasuko zenbatekoa itzuliko da, prezio publikoa ordaindu behar duen pertsonari egotzi ezin zaizkion arrazoiengatik, jarduera egiten ez denean edo zerbitzua ematen ez denean, deialdi honetan ezarritako gainerako baldintzak betetzen badira.

4.– Parte ez hartzeko arrazoia administrazioari egotzi ezin zaionean, honako alderdi hauek egiaztatu beharko dira:

4.1.– Auzolandegian parte hartzea eragozten duen arrazoia hauetakoren bat izatea:

a) Gazteak auzolandegira joatea eragozten dion gaixotasun edo istripuren bat izatea.

- b) Lehen edo bigarren mailako odolkidetasuna duen senide baten gaixotasun larria edo heriotza.
- c) Behar bezala justifikatutako beste ezinbesteko kausa batzuk.

Ordainketa egin behar duen pertsonari egotz dakizkiokeen arrazoitzat joko dira honako hauek: 7. artikuluko 2. paragrafoan eskatutako agiriak epez kanpo bidali izana edo agiriak bidali ez izana, lanpostu bat lortu izana, eskola-emaizta txarrak lortu izana edo auzolandegiaren data berean egingo den beste jarduera-programaren batean plaza eskuratu izana.

4.2.– Auzolandegia hasi aurretik horri uko egiteko orria aurkeztu izana (aginduko III. eranskina), Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailaren Gazteriaren gaien zuzendari eskudunari zuzenduta, beteta eta sinatuta, eta uko egiten dion pertsonaren NANaren edo AIZren fotokopiarekin batera. Agiriak bertatik bertara aurkeztu ahal izango dira Lakuako Zuzenean zerbitzuan eta Bilboko, Donostiako eta Gasteizko Zuzenean zerbitzuaren bulegoetan, baita honako hauetan ere: Euskal Autonomia Erkidegoko erregistro osagarrietan (hemen daude zerrendatuta: apirilaren 29ko 72/2008 Dekretuan, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren eta bere erakunde autonomoen erregistroen sorrera, antolaketa eta funtzionamenduari buruzkoa) edo urriaren 1eko 39/2015 Legearen (Herri Administrazioen Administrazio Prozedurei buruzkoa) 16.4 artikuluetan aurreikusitako organoetan.

Uko egiteko orria www.gazteaukera.euskadi.eus gazteentzako atariaren auzolandegien gaineko atalean ere eskuratu daiteke.

4.3.– Kuota itzultzea eskatu nahi duen pertsonak honako agiri hauek ere aurkeztu beharko ditu 2017ko urriaren 31 baino lehen:

- a) Kuota itzultzeko eskaeraren orria (aginduaren IV. eranskina), beteta eta sinatuta.
- b) Auzolandegian parte hartzea eragozten duen inguruabarraren justifikazio fede-emailea, dagokion erakunde publikoak egindako ziurtagiriaren bidez, hala balegokio.
- c) Hirugarrenaren (auzolandegian izena emandako pertsona) datuen alta-orria, behar bezala beteta eta sinatuta, helbide honetan eskuratu daitekeena:

<http://www.euskadi.eus/eusko-jaurilaritza/-/hirugarrenaren-datuen-aldaketa/>

- d) Kuota itzultzea eskatzen duen eta auzolandegiak programan izena emanda dagoen pertsonaren NANaren edo AIZren kopia.

Kuota itzultzeko eskaera eta hirugarrenaren datuen alta-orria www.gazteaukera.euskadi.eus gazteentzako atariaren auzolandegien gaineko atalean eskuratu daitezke.

5.– Gaztea auzolandegian parte hartzen hasi ondoren, kuota behar bezala justifikatutako ezinbesteko kasuetan baino ez da itzuliko. Kasu horietan, parte hartu ez den egunei dagokien zenbateko proportzionala itzuliko da. Egun horiek auzolandegiaren txandaren iraupenaren % 50 izan behar dira gutxienez.

6.– Kuota itzultzeko eskaerak Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailaren Gazteriaren gaien zuzendari eskudunak ebatziko ditu, aurkezten diren egunetik bi hilabeteko (2 hilabete) epean.

7.– Estatuko beste autonomia-erkidego batzuetako auzolandegietan izena emateko ordaindutako zenbatekoak honako hauen arabera itzuliko dira, hala izanez gero: autonomia-erkidego horietan kuotak erregulatze arauetan ezarritakoaren arabera.

12. artikulua.– Jarduera bertan behera uztea.

Gazteriaren gaien zuzendaritza eskudunak, Euskal Autonomia Erkidegoan egingo den auzolandegi bat bertan behera utz dezake, ikuspuntu teknikoan eta aukeran oinarritua beharrezkotzat jotzen badu. Horretarako, Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailaren Gazteriaren gaien zuzendari eskudunak alde aurretik emandako aldeko ebazpena behar da.

Kasu horretan, bertan behera utzitako auzolandegian izena emandako pertsonak beste auzolandegi batera bideratu ahalko dituzte, aukera hori badago eta borondatez hori onesten badute. Horrela ez bada, izena emateko kuota itzultzeko eskubidea izango dute. Hala ere, pertsona horiek, 2017ko urriaren 31 baino lehen, jarraian aipatutako agiriak bertatik bertara aurkeztu beharko dituzte Lakuako Zuzenean zerbitzuan eta Bilboko, Donostiako eta Gasteizko Zuzenean zerbitzua-ren bulegoetan, baita honako hauetan ere: Euskal Autonomia Erkidegoko erregistro osagarrietan (hemen daude zerrendatuta: apirilaren 29ko 72/2008 Dekretuan, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren eta bere erakunde autonomoen erregistroen sorrera, antolaketa eta funtzionamenduari buruzkoan) edo urriaren 1eko 39/2015 Legearen (Herri Administrazioen Administrazio Prozedurei buruzkoa) 16.4 artikuluetan aurreikusitako organoetan.

a) Kuota itzultzeko eskaeraren orria (aginduaren IV. eranskinean), beteta eta sinatuta.

b) Hirugarrenaren (auzolandegian izena emandako pertsona) datuen alta-orria, behar bezala beteta eta sinatuta, helbide honetan eskuratu daitekeena:

<http://www.euskadi.eus/eusko-jaurlaritza/-/hirugarrenaren-datuen-aldaketa/>

c) NANaren edo AIZren kopia.

Kuota itzultzeko eskaera eta hirugarrenaren datuen alta-orria www.gazteaukera.euskadi.eus gazteentzako atariaren auzolandegien gaineko atalean eskuratu daitezke.

13. artikulua.– Datu pertsonalen tratamendua.

1.– Auzolandegietan izena emateko eskaera egiteko baldintza izango da alde aurretik bera-riazko eta idatzizko baimena ematea interesdunak emandako datu pertsonalak tratatzeko eta autonomia-erkidegoen administrazioei jakinarazteko, baita eskatutako auzolandegiak kudeatzen dituzten erakundeei ere, Auzolandegiak programa kudeatzeko ezinbestekoa den kasuetan bakarrik.

Horrela, Eusko Jaurlaritzaren Auzolandegiak programan plaza eskatzen duten gazteen datu pertsonalak *Auzolandegien Kudeaketa* fitxategian gordeko dira. Horren arduraduna Eusko Jaur-laritzaren Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailaren Gazteriaren gaien zuzendaritza eskuduna da. Fitxategiaren helburua deialdi hau kudeatzea izango da, baita horrekin lotutako beste edozein administrazio-prozedura edo -espediente ere.

2.– Gainera, horretarako baimena ematen duten deialdiaren parte-hartzaileen datuak Eusko Jaurlaritzaren Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailaren Gazteriaren gaien zuzendaritza esku-dunaren *Gazteriaren Kontaktuak* fitxategian gordeko dira. Aipatutako zuzendaritza da horren arduraduna, eta haren helburua, beste batzuen artean, Gazteriaren gaien zuzendaritza eskuduna-ren kudeaketarekin lotutako informazioa zabaltzea da.

3.– Aipatutako bi fitxategiek bat egiten dute Datu Pertsonalak Babesteko 15/1999 Lege Orga-nikoan ezarritakoarekin eta Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa Sortzeari buruzko otsailaren 25eko 2/2004 Legean ezarritakoarekin.

2017ko apirilaren 10a, astelehena

4.– Interesdunek legean jasotako sartzeko, zuzentzeko, ezerezteko eta aurka egiteko eskubi-deak baliatu ahalko dituzte. Horretarako, idazkia bidali beharko dute Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailera: Donostia kalea 1, 01010 Vitoria-Gasteiz Araba.

AZKEN XEDAPENETATIK LEHENENGOA

Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburuaren agindu honen aurka, aukerako berraztertze errekurtsoa aurkeztu ahalko zaio organo horri, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera hilabeteko epean; bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahalko da Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusian, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera bi hileko epean.

AZKEN XEDAPENETATIK BIGARRENA

Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 2017ko martxoaren 22a.

Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburua,
BEATRIZ ARTOLAZABAL ALBENIZ.

I. ERANSKINA

Auzolandegietan aurrez izena emateko eskaera (txanda librea).

Agiri hau ezin da bete, eskaera modu telematikoan egingo da.

Datu pertsonalak:

Izena

1. abizena

2. abizena

NAN, pasaporte edo AIZ

Jaiotze-data

Zuzendaritza

Probintzia

Udalerria

Udalerria

Posta-kodea

Telefonoa

Eskuko telefonoa

Helbide elektronikoa

Sexua

2017ko apirilaren 10a, astelehena

II. ERANSKINA

Auzolandegietan izena emateko eskaera 2017

(Dibertsitate funtzionala duten pertsonentzako txanda)

1.– Auzolandegiari buruzko datuak

(Izartxoarekin markatutako datuak ezinbestekoak dira gure aplikazio informatikoan izena emateko)

Auzolandegiaren izena *:	
Auzolandegiaren data (txanda) *:	Kokapena *:

2.– Eskatzailearen datu pertsonalak

Izena *:	1. abizena *:
	2. abizena *:
NAN *:	Sexua *:
Helbidea *:	
Udalerrria *:	Posta kodea *:
Telefonoa *: Eskuko telefonoa *: Helbide elektronikoa *:	Jaioteguna *:
Ikasketa-zentroa:	
Elkartea:	
Dibertsitate funtzional mota:	
Gaztea tutoretzapeko edo babespeko etxebizitza batean bizi bada, horren helbidea eta telefonoa:	
Helbidea:	Telefonoa:

3.– Gaztearen senide edo erakunde arduraduna

Izena *:	1. abizena *:
	2. abizena *:
Gaztearekin duen harremana:	
Helbidea:	Telefonoa:
(Larrialdia gertatzekotan, harremanetan jartzeko)	

Sinadura: _____(e)n, 2017KO _____(a)ren ____ (e)an

2017ko apirilaren 10a, astelehena

Inprimaki honetako datu pertsonalak *Auzolandegien Kudeaketa* fitxategian gordeko dira. Horren arduraduna Eusko Jaurlaritzaren Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailaren Gazteriaren gaien zuzendaritza eskuduna da. Fitxategiaren helburua deialdi hau kudeatzea izango da, baita horrekin lotutako beste edozein administrazio-prozedura edo -espediente ere. Inprimakia aurkezten duen pertsonak Eusko Jaurlaritzaren Gazteriaren gaien zuzendaritza eskuduna baimentzen du inprimakiko datu pertsonalak erabiltzeko eta atzerriko beste herri-administrazio batzuei edota beste elkarte batzuei jakinarazteko, Auzolandegiak programa kudeatzeko ezinbestekoa bada. Fitxategiak bat egiten du Datu Pertsonalak Babesteko 15/1999 Lege Organikoan ezarritakoarekin eta Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa Sortzeari buruzko otsailaren 25eko 2/2004 Legean ezarritakoarekin. Interesdunek lege horretan jasotako sartzeko, zuzentzeko, ezerezteko eta aurka egiteko eskubideak baliatu ahalko dituzte. Horretarako, idazkia bidali beharko dute Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailaren Zerbitzu Zuzendaritzara: Donostia kalea 1, 01010 Vitoria-Gasteiz

Agiria honako hauetan aurkeztu beharko da: Eusko Jaurlaritzaren Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailaren Gazteriaren gaien zuzendaritza eskudunean (Donostia kalea 1, Lakua eraikina, 1. solairua, 01010 Vitoria-Gasteiz), Lakuako Zuzenean zerbitzuan eta Bilboko, Donostiako eta Gasteizko Zuzenean zerbitzuaren bulegoetan. Baita honako hauetan ere: Euskal Autonomia Erkidegoko erregistro osagarrietan (hemen daude zerrendatuta: apirilaren 29ko 72/2008 Dekretuan, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren eta bere erakunde autonomoen erregistroen sorrera, antolaketa eta funtzionamenduari buruzkoan) edo urriaren 1eko 39/2015 Legearen (Herri Administrazioen Administrazio Prozedurei buruzkoa) 16.4 artikuluetan aurreikusitako organoetan.

2017ko apirilaren 10a, astelehena

III. ERANSKINA

Auzolandegiaren plazari uko egitea.

Datu pertsonalak:

Izen-abizenak	
NAN, pasaportea edo AIZ (1)	
Helbidea	
Posta-kodea	
Udalerria	
Probintzia	
Helbide elektronikoa	
Telefona	

Uko egindako plazaren datuak:

Auzolandegiaren izena	
Auzolandegiaren data	
Plazaren kodea	
Tokia (autonomia-erkidegoa edo herrialdea)	

(1) Erantsi uko egiten dion pertsonaren NANaren, pasaportearen edo AIZren fotokopia.

_____ (e)n, 2017KO _____ (a)ren ____ (E)AN

Sinadura:

Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailaren Gazteriaren gaien zuzendari eskuduna

Inprimaki honetako datu pertsonalak *Auzolandegien Kudeaketa* fitxategian gordeko dira. Horren arduraduna Eusko Jaurlaritzaren Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailaren Gazteriaren gaien zuzendaritza eskuduna da. Fitxategiaren helburua deialdi hau kudeatzea izango da, baita horrekin lotutako beste edozein administrazio-prozedura edo -espediente ere. Inprimakia aurkezten duen pertsonak Eusko Jaurlaritzaren Gazteriaren gaien zuzendaritza eskuduna baimentzen du inprimakiko datu pertsonalak erabiltzeko eta atzerriko beste herri-administrazio batzuei edota beste elkarte batzuei jakinarazteko, Auzolandegiak programa kudeatzeko ezinbestekoa bada. Fitxategiak bat egiten du Datu Pertsonalak Babesteko 15/1999 Lege Organikoan ezarritakoarekin eta Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa Sortzeari buruzko otsailaren 25eko 2/2004 Legean ezarritakoarekin. Interesdunek lege horretan jasotako sartzeko, zuzentzeko, ezerezteko eta aurka egiteko eskubideak baliatu ahalko dituzte. Horretarako, idazkia bidali beharko dute Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailaren Zerbitzu Zuzendaritzara: Donostia kalea 1, 01010 Vitoria-Gasteiz

IV. ERANSKINA

Auzolandegien kuota itzultzeko eskaera

Datu pertsonalak:

Izen-abizenak:		
NAN, pasaportea edo AIZ:		Helbidea:
PK:	Herria:	Probintzia:
Helbide elektronikoa:		Tel:

Uko egindako plazaren datuak:

Auzolandegiaren izena:	
Noiz egin da:	Plazaren kodea:
Tokia (autonomia-erkidegoa edo	

Kuota itzultzeko eskaera:

Auzolandegirako esleitutako plazaren ordainketa egin ondoren, eta plaza horri uko egin ondoren, dagokidan kuota itzultzea eskatzen dut jarraian azaldutako arrazoiarengatik. Adierazi kasua gurutze batekin (deialdia arautzen duen aginduari jarraituz, kuota itzultzea justifikatzen duen egiaztagiria erantsi behar da):

- Gazteari jarduerara joatea eragozten dion gaixotasuna. Kasu horretan, betetako eta sinatutako ziurtagiri ofizial bat erantsi beharko da, edo medikuaren txosten bat.
- Lehen edo bigarren mailako odolkidetasuna duen senide baten gaixotasun larria edo heriotza. Kasu horretan, behar bezala betetako eta sinatutako ziurtagiri ofizial bat erantsi beharko da.
- Behar bezala justifikatutako beste ezinbesteko kausa batzuk.

€ Auzolandegia bertan behera uztea.

Eusko Jaurlaritzaren Gazteriaren gaien zuzendaritza eskudunari bidali behar dizkiozun agiriak:

- Kuota itzultzeko eskaera, behar bezala beteta eta sinatuta.
- Uko egiteko argudiatutako kausen ziurtagiriak edo egiaztagiriak.
- Hirugarren interesdunaren altaren inprimakia.
- Auzolandegian izena emandako pertsonaren NANaren, pasaportearen edo AIZren kopia.

_____ (e)n, 2017KO _____ (a)ren ____ (E)AN

Sinadura:

Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailaren Gazteriaren gaien zuzendari eskuduna

Inprimaki honetako datu pertsonalak *Auzolandegien Kudeaketa* fitxategian gordeko dira. Horren arduraduna Eusko Jaurlaritzaren Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailaren Gazteriaren gaien zuzendaritza eskuduna da. Fitxategiaren helburua deialdi hau kudeatzea izango da, baita horrekin lotutako beste edozein administrazio-prozedura edo -espediente ere. Inprimakia aurkezten duen pertsonak Eusko Jaurlaritzaren Gazteriaren gaien zuzendaritza eskuduna baimentzen du inprimakiko datu pertsonalak erabiltzeko eta atzerriko beste herri-administrazio batzuei edota beste elkarte batzuei jakinarazteko, Auzolandegiak programa kudeatzeko ezinbestekoa bada. Fitxategiak bat egiten du Datu Pertsonalak Babesteko 15/1999 Lege Organikoan ezarritakoarekin eta Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa Sortzeari buruzko otsailaren 25eko 2/2004 Legean ezarritakoarekin. Interesdunek lege horretan jasotako sartzeko, zuzentzeko, ezerezteko eta aurka egiteko eskubideak baliatu ahalko dituzte. Horretarako, idazkia bidali beharko dute Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailaren Zerbitzu Zuzendaritzara: Donostia kalea 1, 01010 Vitoria-Gasteiz.